

## Hitz-katea Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Egilea: euskaljakintza5 [euskara](#) [Trackback](#)Gaur zortzi ospatuko da [Euskararen Nazioarteko Eguna](#). Aurtengoan ere, egun hau ahalik eta ederrena izateko, euskaljakintzakook gure harri-koskorra jartzen saiatuko gara. Horretarako, hainbat ekimen prestatu badugu ere, gaur bertan hasi eta abenduaren 3an amaituko dugun honetan zuon laguntza beharrezkoa izango zaigu. Hizkuntzarekin hitz-kate luze bat egitea da gure asmoa. **Hitz-kateak guretzat sinbolizatzen du euskarak denon arteko harremana, lotura, behar duela; norbanakook egin ditzakegun ekarpen xumeekin gauza asko lor daitezkeela.**

**Erronka katea abenduaren 3ra arte mantentzea izango da. Guk jarriko dugu lehenengo hitza, eta amaitzen den silabaz hasten den hitz bat jarri beharko duzue zuek.** Lan horretan, ordea, euskarak katea eteterainoko arazoak eman ditzake hainbat hitzekin. Hori saihesteko, eta kasu horietan baino ez, aurretik eman den hitzarekin lotura semantikoa duten hitzak onartuko dira. Adibidez, **euskara** hitzaren jarraipena, amaieran *-ra* silaba duenez, hasieran silaba horixe duen hitz bat izango litzateke. Hori ezinezkoa da, ez baitago euskaraz silaba horrekin hasiko den hitzik. Kasu horietan, esanahi aldetik aurrekoarekin lotura duen hitz bat onartuko genuke (hizkuntza, euskaldun...).

Izugarri eskertuko genuke zuon parte-hartzea. Ez dugu nahi ekimena ikastolara mugatzea, kanpokoek ere esku-hartzea gustatuko litzaiguke. Hitz bat pentsatu eta uzteko tarte besterik ez dugu eskatzen.

Euskara maite eta lau haizeetara zabaldu nahi dugunez, **zabaldu** hitza izango da kateari hasiera emango dion hitza. Ea zer lortzeko gai garen!

